

**Gora Bego**

*Ekitaldia*

ekainaren 29an, 18:30ean

Amaiur parkean



AMAIUR PARKEA



## Oroimenaren taupadak

(Violeta Parraren “Gracias a la vida” eta Amets Arzallusen “Eskerrak, bizitza”-ren ildoan sorturiko lerroak)

*Begoña Etxebarria biziki gertu sentituz*

Eskerrak, bizitza! eman digulako  
amets, itxaropen ta ilusio franko,  
egun ilun eta goibelen kontrako  
zeruan izarrak dir-dir direlako,  
ta haien artean Begoña han dago.

Pozerako ispilu, doinu eta margo,  
trumoi hotsak urtu eta isilerako  
tresna ezin hobea izan zaigulako  
euskara gurea, lehen, orain, biharko;  
euskaltzalea, Bego gugan dago.

Eskaini baitigu gozamen gehiago:  
lotsa bazterturik, ausart katurako  
Ikasbiden denok biltzen gara, hango  
giro atseginak, Begok ereindako,  
erakarrita, sirenak halako,

Elkarrekin jan ta elkarrekin trago,  
elkarrekin mintza, apal ta ozenago,  
afari-meriendak dira guretzako  
ezagutza gunerik, mahai inguruetako  
lagunartean, Bego bertan dago.

## MENDIAN GORA (X. Amuriza-Imanol)

Mendian gora haritza,  
ahuntzak haitzean dabilta,  
itsasoaren arimak dakar  
ur gainean bitsa.  
Kantatu nahi dut bizitza  
usteltzen ez bazait hitza,  
mundua dantzan jarriko nuke  
Jainkoa banintza.

Euskal Herriko tristura,  
soineko beltzen joskura  
txori negartiz bete da eta  
umorez hustu da.  
Emaidazue freskura  
ura eskutik eskura  
izarren salda urdina edanda  
bizi naiz gustura.

Euskal Herriko poeta  
kanposantuko tronpeta  
hil kanpaiari tiraka eta  
Hutsari kolpeka.  
Argitu ezak kopeta  
penak heuretzat gordeta  
goizero sortuz bizitza ere  
hortxe zegok eta.

Mundua ez da beti jai,  
inoiz tristea ere bai,  
baina badira mila motibo  
kantatzeko alai.  
Bestela datozen penai  
ez diet surik bota nahi,  
ni hiltzen naizen gauean behintzat  
egizue lo lasai.